



HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Euskadiko udalentzako informazio-
dokumentua





HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

HaurEkin – Haurren hirien eta udalerrien euskal sarea Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzaren proposamena da, haurren eta nerabeen parametroa edo ikuspegia tokiko agenda zein politika publikoan txertatzearen alde egiteko.

Hori guztia, Innobasque – Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin eta haren sareari atxikitako udalerriekin («Haurren Hirien Sarea») egindako transferentzia-lanaren emaitza da. Horregatik, esan dezakegu «Haurren Hirien Sarea» ren ibilbide berri bat hasi dela, Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren Zuzendaritzaren gidaritzapean, «HaurEkin» izenarekin.

Hurrengo orrialdeetan informazio hau aurkituko duzue:

Zein da Sarearen oinarri filosofikoa?

Zer eskaintzen du Sareak?

Zer eskatzen du Sareak?

Nola egituratzen da Sarea?

Zer urrats eman behar dira Sarrera atxikitzeko?

Zein da Sarearen oinarri filosofikoa?

Sarearen oinarri filosofikoak, funtsean, Francesco Tonucciren «Haurren Hiria» du ardatz. Proiektu politiko honek tokiko politikan «ume» parametroa txertatzearen alde egiten du. Proposamen honen helburua gure harremanak, baliabideak eta espazio komunak eraldatzea da, gure udalerrri eta hirietan konfiantza eta autonomia, partaidetza eta osasun baldintzak berrezarritik.

Laburbilduz:

1.- Pertsonak, guztiok, gai garela eta desberdinak garela ziurtatzea du abiapuntu. Eta elkarrekin izan eta egin behar dugula, pertsonalki eta kolektiboki hazi ahal izateko. Hori modu osasungarri eta jasangarrian egin ahal izateko, begirada «10 metrora» jaitsi behar dugu, eta ez dugu inor bistatik galdu behar.

2.- Zergatik haurrekin?

- Beren eskubidea delako: eragiten dien guztian parte hartzeko eskubidea dute.
- Gai direlako: pertsona trebeak eta osoak dira.
- Behar dugulako: egungo helduen ereduak alternatiba bat behar du.

3.- Haurrak elementu lotesleak eta disruptiboak dira. Haurrengandik ikas dezakegu, eta ikaskuntza hori egin dezakegu, gure beldur eta erresistentziei erantzunez, modu atseginean.

Hiru ekintza-eremu



Pertsonak. Beharrezkoa da norberaren gaitasunean konfiantza berreskuratzea eta gure desberdintasunen balioa aitortzea. Horrela bakarrik berrezarri ahal izango dugu elkarrekin hazteko beharrezkoa den autonomia.



Harremanak. Aniztasunean eta konfiantzaz bizitzen ikastea funtsezkoa da komunitate-bizitzan parte-hartzea sustatzeko eta potentzial handieneko erronka kolektiboei aurre egiteko.



Espazioa. Espazio komuna guztientzako harreman-leku bihur dezakegu, «gizon nagusi, langile eta autodun» parametrotik «ume» parametrora igarota.



HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Zer eskaintzen du Sareak?

Laguntza, ikaskuntza eta hedapena

- Proiektuak diseinatzeko eta egokitzeko tutoretza- eta/edo laguntza-zerbitzua.
- Bilerak atxikitako udalerrietako arduradun politiko eta teknikoekin.
- Urteko topaketan parte hartzea eta esperientziak zabaltzea.
- Espazio komuna (prestakuntza, materialen edizioa...).
- Topaketak eta lotura «La Citta Dei Bambini» nazioarteko sarearekin.



HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Zer eskatzen du Sareak?

Lankidetzan aritzea, partekatzea eta ekintzak garatzea

- Haurren eta nerabeen eskubideak politika publiko guztietan txertatzea.
- Sarearen topaketa teknikoetan eta koordinaziokoetan parte hartzea.
- Esperientziak eta ezagutza partekatzea gainerako udalerriekin (pleguak, hedapen-materialak, ekintza-ideiak...).
- «Umeen Kontseilua» gailua, gutxienez, «HaurEkin» esparruaren barruan epe laburrean garatzeko konpromisoa hartzea.





HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Nola egituratzen da sarea?

Abiapuntu gisa, hiru dira gure herri eta hirietako aniztasunera molda daitezkeen ekimen errazak, **hiru lantalde edo gailutan** egituratzen direnak:

Haurren kontseilua. Alkatetzaren organo aholku-emailea da. Hiririari eta tokiko kudeaketari buruzko ikuspuntua eskaintzen dute. Alkatearen begirada aberasteko eta «desberdinekin» lan egiten ikasten laguntzeko helburua du.

Lagunekin eskolara. Hirian mugitzeko autonomia haurrei itzultzeko udalaren apustua da. Testuinguru horrek espazio fisikoa berrikusteko eta herritarren artean harreman-estilo berriak sustatzeko aukera ematen du.

Kaleak jolastu. Udalaren apustua da espazioa jolasaren zerbitzura jartzeko, haurren zuzenbidearen ikuspegitik eta parametro sanitario batetik.

Era berean, Francesco Tonucciren «Haurren Hiria» filosofiarekin edo haurren eta nerabeen eskubideekin lotutako beste gailu batzuk sortzeko eta dinamizatzeko aukera du Sareak



HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Zer urrats eman behar dira Sarera atxikitzeko?

HaurEkin sarera atxikitzeko, urrats hauek eman behar dira:

- 1.- Interesa erakustea www.euskadi.eus/haur-ekin webguneko formularioaren bidez.
- 2.- Informazio-bilera bat egitea Eusko Jaurlaritzako Familien eta Haurren Zuzendaritzarekin.
- 3.- Atxikipena formalizatzea Alkatetzaren Dekretu bidez, Gobernu Batzordearen erabaki bidez edo Udalbatzaren erabaki bidez, ordezkaritza politiko eta tekniko osoa inplikatur.

Laguntza behar baduzu...

- ... proiektua Udalaren barruan edo komunitateari helarazteko,
- ... proposamena eta lehendik dauden esperientziak hobeto ezagutzea,
- ... oinarritzko proposamenak zure komunitatearen berezitasunetara egokitzea,

Jarri harremanetan:

Eneko Galletebeitia Laka
e-galletebeitia@euskadi.eus
945 01 93 61



HaurEkin

HAURREN HIRI ETA HERRIEN EUSKAL SAREA
RED VASCA DE CIUDADES Y MUNICIPIOS CON LA INFANCIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES